

Literal Meaning

FRANÇOIS RECANATI

Cambridge: Cambridge University Press, 2004, 179+viii or.

(1) Ni prest nago.

Zein da (1)-en esanahia? Hori bezalako galdera inozoetatik abiatu ohi dira filosofian eztabaidarik korapilatsuenak. Hori bezalako galderak izan ziren XX. mendeko hizkuntzaren filosofiaren iturri. Hori bezalako galderak dira XXI. mendeko hizkuntzaren filosofiaren kezken oinarri, mendearen hasieran behintzat; kritikagai dugun liburu hau da horren froga argia. Jakina, filosofoek besterik egiten ez dakitelako-edo, erraza dirudien galderari zuzenean erantzun ez eta auzi sakonen tankera duen hamaika galdera berri formulatzen dute¹; honako hauek, esaterako

- Zertaz ari gara, (1)-ez ari garenean: perpausaz ala esaldiaz? Bestela esanda, gramatikaren arabera egituratutako adierazpen linguistikoen unitate konplexu ‘osoaz’, ala hiztun jakin batek une eta toki jakin bazuetan perpaus bat ‘esateko’ ekintzaz?²
- Zenbateraino da (1)-en esanahia testuinguruaren menpekoa?
- Bereziki, zenbateraino da (1)-en esanahia (1)-en esalearen arabera?
- Zenbateraino da hiztun batek (1)-en esaldia egitean esaten duena (1)-en esanahiaren arabera? Edo, oro har, zenbateraino da hiztunaren esanahia perpausaren esanahiaren arabera?

¹ Zergatik? Euskal hiztun orok ez al daki bada (1)-en esanahia zein den? Iris Murdochek idatzi zuen: filosofia begien bistakoa dena esateko gaitasun gorena da; baina hurbilen dagoena da urrutien dagoena.

² Ez da erraza ‘perpaus’ eta ‘esaldi’ kontzeptuak zama teorikorik gabeko terminoetan definitzea; hortik, zuhurtzia-kakotxen erabilera. Ahal dela, beraz, har ‘perpaus’ eta ‘esaldi’ zentzu intuitiboan.

— Edo alderantziz ote da? Ez al du hiztunen esanahiak mugatuko zer den perpaus batek mugatzen duena?

Galderok hizkuntzaren filosofiako, semantikako eta pragmatikako (eta sintaxiko) funtsezko arazoak islatzen dituzte, eta, besteak beste, horiei emandako erantzunen arabera, muturreko bi jarrera azaleratu dira bata bestearen kontrako eztabaidan: kontestualismoa eta literalismoa; literalismoa eta kontestualismoa.

Labur-labur, lanean hasteko, horrela deskriba ditzakegu aurkako bi jarrerok:

- *Kontestualismoa*. Perpausen esanahi konbentzionalak ez du berez proposiziorik (egibaldintzarik, edukirik) mugatzen edo adierazten. Esaldiek, hots, hiztunek, perpaus baten esaldia eginez, adierazten dituzte proposizioak (egibaldintzak, edukiak, esanak). Testuinguruaren zeregina (hiztunaren asmoarena, bereziki) funtsezkoa eta handia da esaldi batek adierazitako proposizioa (egibaldintza, edukia, esana) mugatzerakoan.
- *Literalismoa (edo Minimalismoa)*. Perpausen esanahi konbentzionalak adierazten ditu proposizioak, semantikoki. Testuinguruaren zeregina oso zehatza da horretan: testuinguruaren menpeko balio semantikoa duten adierazpenei balio semantikoak mugatzea. Horrelako adierazpenen multzoa txikia da konparazioan, eta horien balioak ematera mugatzen da testuinguruaren zeregina perpausetik, semantikoki, adierazitako proposizioak zehazterakoan.

François Recanatik (FR, hemendik aurrera) kontestualismoaren defentsa egiten du aztergai dugun *Literal Meaning* liburuan. Defentsa sendoa; sendoa eta zehatza; FRk eskaini ohi duen seriotasun bermearekin; eta, hau ere kome-ni da esatea, askotan baino estilo labur eta arinagoarekin (gaitako asko artikulatu gisa sakonago aztertu dituela kontuan izanda, eskertzen da hori).

Hala ere, jakina, FR ez da mugatzen bere jarreraren alde eta kontrako muturrekoaren aurka egitera. Tarteko beste jarrera posible batzuk definitu, eztabaidatu eta arbuiatu edo asimilatu egiten ditu. Horretarako, xx. eta xxi. mendeetako hizkuntzaren filosofoak, semantikari nahiz pragmatikariak (Frege, Russell, Strawson, Davidson, Wittgenstein, Austin, Grice, Searle, Perry, Travis, Sperber eta Wilson, Carston, Bach, Stanley, Taylor...) talde batean edo bestean kokatzen ditu eta semantikan nahiz pragmatikan (edo sintaxian, maila apalagoan bada ere) landu diren hainbat gai berraztertzen ditu (indexikoak, deskribapen zehaztuak, kuantifikatzaileak, osagai artikulatugabeak, elipsia, esanahi literala *versus* ez-literal, aberaste pragmatiko beharrezkoa nahiz hautazkoa, esanaren eta inplikaturaren arteko bereizketa...). Alde horretatik, kontestualismoaren eta literalismoaren aldeko azalpenetan baino hizkuntzaren filosofiako jarrera nagusiei egiten dien begiratuan aurki dezake

batek liburu honen interesa. Baina ez dut uste, gaian sartu berri ez denak ere panorama garbirik egiterik lortuko duenik. Nire iritzian, FRk lan gehiegi hartzen du bere jarrerari eusteko besteenak desitxuratu edo, gutxienez, ez behar bezala aintzat hartzen; adostasun edo osagarritasun puntuei ez erreparatzen; lehen mailako eta bigarren mailako argudioak ez bereizten; (aurre)iritzi teoriakoei eta azterketa enpirikoari dagokiena banatzen.³

FRren arabera, literalismoak Frege eta Russellekin hasi eta Davidsonengana doazen semantikaren oinarrietan luke sorburua. Kontestualismoak, berriz, pragmatikan lituzke erroak. *Ikerketa Filosofikoetako* Wittgenstein, Austin eta Searle lirakeke kontestualista entzutetsuenak. Griceren kasuak berezia dirudi. Recanatik dioenez, literalista litzateke, pragmatikaren guraso izan arren.⁴ Baina Sperber eta Wilson kontestualista argiak lirakeke denen iritziz. Horregatik harrigarri samarra gertatzen da gaur egungo egoeraz egiten duen bilana: FRren ustez, hizkuntzaren filosofo nahiz hizkuntzalarien artean literalismoa da nagusi oraindik orain. Irakurria diegu justu kontrakoa minimalista sonatuenetako batzuei, alegia, kontestualismoa dela nonahi nagusi.⁵

Kontestualismoaren alde eta literalismo edo minimalismoaren aurka egiten du FRk. Bi jarrera horiek eta bien tartean aurki daitezkeenak irizpide honen arabera bereizten ditu: zein da perpausaren esanahiaren eta horren bidez esanda koaren (adierazitako proposizioaren, edukiaren edo egibaldintzen) arteko aldearen tamaina? Eta horrekin lotuta, zein da alde horri buruz egiten den analisia?

Minimalismoak honela erantzuten die galdera horiei: perpaus baten esanahitik horren bidez adierazitako proposiziora doan aldea *minimoa* da, eta esanahiak berak zehazten duenera mugatzen da, esanahiak berak eskatzen baitu balio semantiko batzuk testuinguruaren bidez finkatzea. Har dezagun, berriz, lehen adibidea:

(1) Ni prest nago.

Perpausaren esanahiaren arabera, testuingurura jo beharra dago 'ni' ize-nordainaren erreferentea eta aditzaren denboraren erreferentea mugatzeko. Nik orain (1) esaten badut, esaldiak adierazitako proposizioa 2 litzateke:

³ Azken hau bereziki egia da Herman Cappelen eta Ernie Leporeren *Insensitive Semantics: A Defense of Semantics Minimalism and Speech Act Pluralism* (Oxford: Blackwell, 2005) liburuari buruz, baina FRren honetan ere sumatzen dugu.

⁴ Beste batzuek interpretazio okerra irizten diote horri. Ikus, esate baterako, Stephen Nealeren «This, That, and The Other» in M. Reimer & A. Bezuidenhout (arg.) *Descriptions and Beyond*, Oxford, Blackwell, 2004, 68-182.

⁵ Ikus Herman Cappelen & Ernie Lepore, *Insensitive Semantics: A Defense of Semantics Minimalism and Speech Act Pluralism*, Oxford: Blackwell, 2005, eta horren kritika: Kepa Korta & John Perry (argitaratzeke), «Varieties of Minimalist Semantics», *Philosophy and Phenomenological Research*.

(1_{min}) <KEPA, PREST, 2005EKO OTSAILAREN 18KO GOIZEKO 11:27>

Eta minimalismoak hor utziko luke kontua; perpausaren esanahiak eta horrek eskatuta egindako testuinguru ekarpenek finkatzen dute adierazitako proposizioa. Kito.

Kontestualismoaren arabera, ordea, hori ez da erantzun egokia, bi arrazoiengatik gutxienez: hasteko, (1_{min}) ez delako proposizio bat, hots, proposizio *oso* bat; ez da bere horretan egiaztagarria, ez du egibaldintza zehatzik. 'Prest' adierazpen indexikoa ez izan arren, testuinguruaren bidez zertarako prest zehazten ez bada, ez dago proposiziorik. Beraz, nik egindako esaldiak adierazitako proposizioa ez da (1_{min}). Jo dezagun, lankideok Agarre tabernan kafea hartzeko plana egina dugula. Nik (1) esaten dut. Kasu horretan adierazitako proposizioa garbi dago ez dela (1_{min}), (1_{kon}) baizik:

(1_{kon}) <KEPA, PREST, AGARRERA KAFA HARTZERA JOATEKO, 2005EKO OTSAILAREN 18KO GOIZEKO 11:27>

(1_{kon})-ek jasotzen ditu nik esandakoaren egibaldintzak, eta ez (1_{min})-ek, honek eginbaldintzarik eduki ez baitauka. Are gehiago, (1_{min}) proposizio *osotzat* joko bagenu ere —kontestualistak dio— (1_{kon}) izango litzateke nire esaldiak adierazitako proposizioa, hori baita nik adierazi dudana, Agarrera kafea hartzerako joateko prest nagoela (orain), ez soilik prest nagoela (orain).

Antzeko zerbait gertatzen da ondoko adibideekin ere:

- (2) Euria ari du (Donostian gaur esanda)
- (3) Gosaldu dut (Joanak, kafea hartzeko gonbit bati orain erantzunez)
- (4) Ez zara hilko (Amak, orain kolpe txiki bat dela-eta negarrez ari den Beñat gazteari)
- (5) Denbora beharko dugu hemendik tontorrera iristeko (Iñakik Olatzi mendian)

Kontestualismoaren arabera, adibide hauetan guztietan minimalismoak kale egingo luke sistematikoki, esaldien egibaldintza intuitiboak zehazterakoan. Esaldi horien bidez adierazitako proposizioak ez dira hauek:

(2_{min}) <EURIA, 2005EKO OTSAILAK 18>

(3_{min}) <GOSALDU, JOANAK, INOIZ 2005EKO OTSAILAREN 18KO 11:30AK BAINO LEHEN>

(4_{min}) <HIL, BEÑAT, EZ, 2005EKO OTSAILAREN 18KO 11:30ETATIK AURRERA>

(5_{min}) <DENBORA BEHAR, OLATZEK ETA IÑAKIK, DAUDEN TOKITIK TONTORRERA IRISTEKO>

Hauek lirateke, gutxi gorabehera, perpausen esanahiaren eta indexikoen balioa zehaztearen emaitza diren proposizio minimoak. Orain, horiek al dira hiztunek beren esaldien bidez adierazitako proposizioak? Kontuan har, egibaldintzei dagokienez oso tribialak direla proposizio horiek guztiak. (2_{min})

proposizio osoa bada —tokirik gabe proposiziorik ez dagoela argudia dezake batek—, eguraldiari buruz dakigunagatik, oso litekeena da, ia ziur egon gintezke, 2005eko otsailaren 18an nonbait euria egitea. Joanaren otordu ohitu-rei buruz dakigunagatik, ziur egon gintezke Joanak gosaldu duela bere bizitzan inoiz otsailaren 18ko 11:30ak baino lehen. Beñaten hilezkortasunari buruz dakigunagatik ere, faltsua da, tribialki faltsua, egun eta ordu horretatik aurrera ez dela hilko. (5_{min})-ek, berriz, egia analitikoa dirudi, ekintza oro burutzeko behar baita denbora.

Kontestualismoaren arabera, ordea, ez dira horiek (2)-(5) esaldiez adierazitako proposizioak. Ez dira horiek hiztunek esan eta, kondizio normaletan, entzuleek ulertu dituzten proposizioak, beste hauek baizik⁶:

- (2_{kon}) <EURIA, 2005EKO OTSAILAK 18, DONOSTIAN>
- (3_{kon}) <GOSALDU, JOANAK, INOIZ 2005EKO OTSAILAREN 18KO 11:30AK BAINO LEHEN, GOIZ HORRETAN>
- (4_{kon}) <HIL, BEÑAT, EZ, 2005EKO OTSAILAREN 18KO 11:30ETATIK AUERRERA, KOLPE HORI DELA-ETA>
- (5_{kon}) <PENTSA ZEZAKETENA BAINO DENBORA GEHIAGO BEHAR, OLATZEK ETA IÑAKIK, DAUDEN TOKITIK TONTORRERA IRISTEKO>

Elementu horiek, inplizituki bada ere, adierazitako proposizioan parte dira ematen du, intuizioaren arabera. Eta minimalismoaren arabera lortutako proposizioak, aldiz, ez dira proposizio *osoak* —(1_{min}) eta (2_{min})— kasuetan edo, proposizio osoak badira —(3_{min}), (4_{min}) eta (5_{min})—, ez dira, hiztun gisa ditugun intuizioen arabera, esaldiek adierazitakoak. Horregatik, kontestualismoaren arabera, esaldiak adierazitako proposizioa, perpausaren esanahi kontentzionalak eta horrek gidatutako indexikoen *asetze* prozesuak mugatuta koetatik harago doa. Prozesu pragmatikoez hartzen dute parte esaldiak adierazitako proposizioa mugatzean, minimalistak onartzeko prest daudena baino gehiago.

Problema hauei ematen dieten erantzunen ezaugarriari so eginda, minimalismotik kontestualismora beste hiru jarrera ikusten ditu FRk: indexikalismoa, sinkretismoa eta kuasi-kontestualismoa. Indexikalismoaren ordezkariarik ezagunena Jason Stanley⁷ da. Jarrera horren arabera, perpaus baten esaldi batez esanaren osagai oro, pragmatikoki mugatzen bada ere, perpausaren forma logikoak eskatuta mugatzen da. Alegia, elementu bat esanaren parte bada perpausaren semantikak hala eskatzen duelako da, ezkutuko indexikoak balira bezala funtzionatzen duten forma logikoko parametro gisa. Indexikalismoaren arabera, beraz, goian letra loditan jarri dugun elementu bako-

⁶ Letra lodian (kontestualismoaren arabera adierazitako) proposizioaren osagai berria.

⁷ Ikus Jason Stanley (2000) «Context and logical form», *Linguistics and Philosophy* 23: 391-434, eta Jason Stanley & Zoltán Szabó (2000) «On Quantifier Domain Restriction», *Mind and Language* 15: 219-61.

tzeko ezkutuko indexiko bat legoke perpausaren forma logikoan. Hipotesi gogorra da eta eraginkorra tresna metodologiko gisa baina zaila da kasu guztietarako balio izatea. Recanatik hori erakusten du kasuen azterketa zehatzean. Baina badu beste argudio bat ere: indexikalismoa gertuago dagoela azkenean kontestualismotik minimalismotik baino.

Jakina, bi jarrerak, literalismoa eta kontestualismoa, bateragarri ikusten dituen bideari esaten dio FRk sinkretismo. Eta Kent Bach⁸ jartzen du horren ordezkari nagusi gisa, nahiz FRk berak ere inoiz halakorik defendatu duela onartzen duen. Jarrera horren arabera esanaren bi kontzeptu bereiz litezke: minimoa batetik, perpausaren esanahiak eta hitzunaren asmorik kontuan hartzen ez duen testuinguruak mugatzen dutena; eta aberastua bestetik, hitzunaren asmoa ere kontuan hartzen duena. Jakina, FRren ustez, literalismotik daukan alde horrek ezin eutsizkoa egiten du sinkretismoaren jarrera, literalismoa baztertu beharra dagoen arrazoi berberengatik. Eta horien artean garrantzitsuenetakoa, azpideterminazio semantikoaren tesia deritzona, perpausaren esanahiak eta testuinguru murrizak oro har proposiziorik mugatzeko gai ez direla dioen tesia.

Kuasi-kontestualismoa pertinentziaren teorian gai horiei buruz dagoen jarrerari esaten dio FRk. Sperber eta Wilson eta Carston⁹ dira beraz ordezkari nagusiak. Hauen eta kontestualista osoen arteko desberdintasuna garrantzia handirik gabeko xehetasunei buruzkoa da, ez jarrera nagusiari buruzkoa.

Merezi du FRren bereizketak eta eskaintzen dizkien eztabaidak arretaz irakurtzea. Informazio bibliografiko zehatza eta zabala ere eskaintzen du arazo bakoitzaren azterketari eta eztabaidari segida eman ahal izateko. Eta maiz konbentzitzeko moduko argudioak ematen ditu FRk. Esan beharra daukat, hala ere, punturen batean eten harrigarri samarra sumatu diodala eztabaidaren harian. Bada atal bat (65. orrian hasiera duena) proposizio minimo erreflexibo baten existentziaren aukerari eskaintzen diona. Proposizio minimo horren existentziaren alde egiten du FRk eta Soamesek egindako kritiketatik defendatu ere egiten du. Baina horretantxe uzten du gaia! Jakina, proposizio minimo horren existentziak ondorioak ditu bere argudio-ildo nagusian hainbatetan darabilen proposizio *ez-osoan* asetzearen ideian eta agian horregatik uzten du alde batera proposizio erreflexiboaren aukera. Baina ez da ez, hala ere, erraz ulertzekoa.¹⁰ Nolanahi ere, esango nuke eraginkorragoa dela FR adibide eta arazo zehatzen eztabaida arduratsuan, eta bereziki besteez dauz-

⁸ Ikus, esate baterako, Kent Bach (2000), *Quantification, Qualification and Context. A Reply to Stanley and Szabó*, *Mind and Language* 15: 262-283; (2001) *You Don't Say? Synthese* 128: 15-44.

⁹ Ikus Dan Sperber eta Deirdre Wilson (1986/1995), *Relevance: Communication and Cognition*, Oxford: Blackwell. (2nd revised edition: 1995) eta batez ere Robyn Carston (2002), *Thoughts and Utterances: The Pragmatics of Explicit Communication*. Oxford: Blackwell.

¹⁰ Ikus John Perry (2001), *Reference and Reflexivity*, Stanford: CSLI, eta Kepa Korta & John Perry (argitaratzeko), «Three demonstrations and a funeral», *Mind and Language*.

katen gabeziak erakusteko garaian, kontestualismoaren aldeko argudio orokor sendo baten eraikuntzan baino.

FRren arabera, minimalismoaren problema nagusia hau da: ez datorrela bat esan duenarekiko hiztunak daukan kontzientziarekin. Eta horretantxe dagoke kontestualismoaren bertute nagusia: esanaren eta inplikaturaren bereizketari buruz hiztunak duen berezko ezagutzari zor zaiona aitortzen diola. Eta horixe da, nire ustez, FRk eztabaidan erabiltzen duen argudiorik ahulena, prozesu automatiko inkontzienteen eta kontzienteen arteko bereizketan oinarritzen duen argudio horixe. Ahula da, esanaren eta inplikaturaren arteko bereizketarako erabiltzen duen ‘availability’ (erabilgarritasun?) printzipioa inor gutxi konbentzitzeko modukoa den arrazoi berberetatik; ez al dago bereizketa teoriko nagusi baterako arrazoi hoberik, esaten dugunaren eta inplikutzen dugunaren arteko bereizketari buruz hiztunok omen dugun intuizioa eta kontzientzia baino? Horrenbeste jarrera eta argudio aztertu ondoren, hori al da FRk berearentzat eman dezakeen argudio ildorik indartsuena?

Gainera, esan beharra dago FRk ihes egiten diola literalismoak izan ditzakeen aldeko argudio batzuk eztabaidatzeari. Eta harrigarria da hori harengan. FR normalean auzi baten gainean izan daitezkeen ikuspuntu guztiak imajinatzen saiatzen da; inork adierazi dituenak nahiz inork adierazi ez baina arrazoizko samar gerta litezkeenak. Imajinatu eta bakoitza eztabaidatu, nekarri egiteraino. Oraingoan, berriz, badira argiak izanagatik aintzat hartzen ez dituen argudioak. Goian esan dugu proposizio minimo erreflexiboaren auzia aipatu bai baina bere horretan utzita etena egiten duela. Baina bada beste auzi bat aipatu ere egiten ez duena: perpaus (tipo) beraren edo ezberdinen esaldi (ale) ezberdinek gauza berbera esatea —proposizio berbera adieraztea, hizkera filosofikoagoan esan nahi bada— hiztunon intuizioan zeharo errotua dagoen gertakaria da. Nola esplika dezake kontestualismoak hori? Edo esplikatu ez eta gauza bera esatearen posibilitatea bera ukatu egin behar al du kontestualismoak? Harrigarria bada ere, FRk ez dio gai horri heltzen. Eta hutsunea da hori bere argudioan. Hutsune inportantea.

Liburu garrantzitsua da edozein modutan FRren *Literal Meaning* hau. 2004an argitaratu zenez geroztik merezitako arreta jaso duena: handia, alegia. Eta beste batzuei ere, Cappelen eta Leporeren *Insensitive Semantics* dugu batez ere gogoan, arreta handirako bidea egin diena. Hizkuntzaren filosofia-ko azken urteotako libururik interesgarrienetakoa, semantikaren eta pragmatikaren erroetara jotzen duena. Gai horietan interesik duen ikertzaile edo graduondoko ikasle orok landu beharra dauka.

Kepa Korta
ILCLI